## Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
## *Memoria Departamento Programa - GASTOS*

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02.** ***Agricultura*** | **03.** Abeltzaintza<br>**03.** *Ganadería* | **710.101** Animali Ekoizpena eta Osasuna<br>**710.101** *Producción y Sanidad Animal* |

Abeltzaintza Zerbitzuaren programak beren beregiko jarduketak burutzen ditu berariaz bere eskumenak diren arloetan,hau da, animali ekoizpen eta osasunaren arloan eta Bizkaiko abeltzaintzaren eremuan.

El Programa del Servicio de Ganadería comprende actuaciones específicas en el ámbito de sus competencias en materia de Producción y Sanidad Animal en todo el sector ganadero de Bizkaia.

Animali osasunak eskuratu nahi dituen helburuak etxeko animalien eritasunak aurre-arretaz zaintzea eta kontrolatzea dira, jendearen osasunari edo ekonomiari kalte egiten baldin badiote. Horretarako, urtero, Gaixotasunak deuseztatzeko programa ofizialak egiten dira azienda osoan eta apurka-apurka aurrera egitea lortu da eritasunen murriztapenean edo ezabaketan, esaterako: tuberkulosia, bruzelosia, perineumonia eta leukosia behi-aziendaren kasuan; bruzelosia, epidimitisa eta mihi urdina ardi- eta ahuntz-aziendetan; txerri-izurria eta Aujezsky-ren gaitza; besikulako gaitza txerri-aziendan, eta barroasia erle-aziendaren kasuan. Hori guztia elikagai katearen kontrolerako programa nazionalen esparruan egingo da (EKKPN).

Los objetivos que se persiguen en Sanidad Animal están orientados hacia la prevención y control de las enfermedades de los animales domésticos con repercusiones económicas o en la salud pública. Se realizan por ello con carácter anual Programas oficiales de erradicación de enfermedades de toda la cabaña ganadera, consiguiéndose progresivos avances en la reducción o eliminación de enfermedades como: Tuberculosis, Brucelosis, Perineumonía, Leucosis en Bovino; Brucelosis, Epididimitis y Lengua Azul en ovino y caprino; las Pestes Porcinas, enfermedad de Aujezsky y enfermedad vesicular, en porcino y Varroasis en abejas. Todo ello en el marco de los Programas Nacionales de Control de la Cadena Alimentaria (PNCOCA).

Halaber, merezi du animalien osasunerako programak aipatzea, bai eta entzefalopatia espongiformeak aurrearretaz zaintzeko eta kontrolatzekoak, Sandach hegaztien gripearen epidemiozaintzak edo arrautzak jartzeko hegaztietako salmonella kontrolatzeko programak eta ugalketako patologiei lotuta dauden gaitzak kontrolatzeko programak (IBR,…). Bestetik, ekoiztutako behien  esnearen kalitatea hobetu eta kontrolatzeko programa garatu da eta animaliak elikatzeko erabiltzen diren  gaiak kontrolatzeko beste programa batzuk, adibidez horietako hondakinen presentzia atzemateko eta debeku diren gaien erabilera aztertzeko.

Merece asimismo mencionar programas de sanidad animal como el de prevención y vigilancia de las encefalopatías espongiformes, Sandach epidemiovigilancia de influenza aviar o programas de control de salmonella en aves de puesta, paratuberculosis y enfermedades vinculadas a la patología reproductiva (IBR,…). Por otra parte, se desarrolla un programa de mejora y control de la calidad de la leche bovina y ovina producida, así como diversos programas de control de sustancia utilizados en la alimentación animal como de presencia de residuos y utilización de sustancias prohibidas

2013. urtean ekoizpen primarioko higienea kontrolatzeko EKKPNetan finkatutako programak aplikatzen jarraituko da, eta abeltzainei indarreko arautegian ezarritako prozedurak aplikatzeko aholkuak emateko tresnak prestatuko dira.

Durante el año 2013 está prevista la continuación en la implementación de los programas de higiene de la producción primaria incluidos en el PNCOCA, así como establecer herramientas de asesoramiento en las explotaciones con el objeto de apoyar al ganadero a establecer los procedimientos contemplados en la normativa vigente.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02.** **Nekazaritza**<br>**02.** ***Agricultura*** | **03.** Abeltzaintza<br>**03.** *Ganadería* | **710.101** Animali Ekoizpena eta Osasuna<br>**710.101** *Producción y Sanidad Animal* |

Era berean, nabarmendu egin behar da 2013an jarraitu egingo dela auditoria egiteko moduko kontrol-prozedurak ezartzen EBko legeriak elika-katearen inguruan ezarritako kontrol planen barrua.

Hay que destacar, igualmente, que durante el año 2013 se deberá continuar con la implantación de procedimientos de control auditables dentro del Plan de Controles de la cadena alimentaria previstos por la legislación comunitaria.

Era berean, programaren funtsezko helburua hauxe da: ustiapenak erregistratzeko (AUEO), abereak identifikatu eta erregistratzeko (ABIE) eta abereen mugimenduak (AMUE) erregistratzeko sistema eraginkor eta azkarrak edukitzea, Europako Batasunaren arautegien arabera, zertarako-eta uneoro haien trazabilitatea eta osasun egoera bermatzeko, jaiotzako ustiategian hasi eta hil arte. Bada, ildo horretatik kudeatzen diren denetariko abereak eta horien mugimendua, eta hegaztien lurralde erregistroak eta baita txakurren errolda ere, estatu edo erkidego mailako erregistroen barruan sartuta daude.

Asimismo, es objeto fundamental del Programa el mantenimiento de un sistema eficaz y ágil de registro de explotaciones (REGA) y de identificación y registro de los animales (RIIA), así como movimiento de los mismos (REMO), de acuerdo con las normativas comunitarias, a fin de garantizar en todo momento su trazabilidad y estado sanitario desde su explotación de nacimiento hasta el momento de su sacrificio. En este sentido, los registros territoriales de explotaciones y movimiento de ganado de todo tipo, así como el censo canino, que se vienen gestionando están integrados en registros de carácter estatal o comunitario.

Azkenik, animalia-ongizatea bermatzea helburu duten ekintzak aipatu behar dira, ustiategian zein garraiatzean, eta gauza bera herri kiroletan.

Finalmente, hay que mencionar las acciones dirigidas a garantizar el bienestar animal, tanto en la explotación como en el transporte así como en el deporte rural.

Helburu horiek eskuratzeko burutzen diren ekintzak hauek dira:

- Abelgorrien, ardi-aziendaren, ahuntz-aziendaren, zaldi-aziendaren, txerri-aziendaren eta erleen identifikazioaren eta erregistro ofizialaren eta txakurren zentsuaren kudeaketa, bai eta horien guztien mungimenduena ere, trazabilitatea bermatuz.
- Lurralde erregistroak autonomia erkidegoekin estatukoekin konektatzea (REGA, SITRAN, REMO eta RIIA...).

Las acciones que se desarrollan para la obtención de estos objetivos son las siguientes:

- Gestión de la Identificación y Registro oficial (RIIA) de ganado bovino, ovino-caprino, equino, apícola, porcino y censo canino, así como de sus movimientos garantizando su trazabilidad.
- Conexión de los Registros Territoriales con las de la C.A.V. y del Estado (REGA, SITRAN, REMO y RIIA).

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **03.** Abeltzaintza<br>**03.** *Ganadería* | **710.101** Animali Ekoizpena eta Osasuna<br>**710.101** *Producción y Sanidad Animal* |

– Abereen mugimenduen kontrola eta erregistroa, hala Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren barruan egiten dena nola kanpotik hona zein hemendik kanpora gertatzen dena; beren beregi zainduko dira abereen jendearteko kontzentrazioak, batez ere, feriak eta azokak.

– Control y registro de Movimiento Pecuario (REMO), tanto interno de la Comunidad Autónoma Vasca como hacia y desde el interior de la misma, con especial interés en las concentraciones públicas de ganado, pastos comunales, ferias y mercados fundamentalmente.

– Informazio kanpainen, diagnosien, immunizazioen, hilketen eta abarren bidez aziendaren zoonosia eta epizootia kontrolatzea.

– Control de zoonosis y epizootias en la cabaña ganadera mediante campañas de información diagnóstico, inmunización, sacrificio, etc.

– Gorpuak biltzeko eta beraien zentro homologatuetan modu osasuntsuan suntsitzeko programa, eta SANDACHekin lotutako industien eta ustiategien kontrola.

– Programa de recogida de cadáveres, y destrucción sanitaria de los mismos en centros homologados, así como control de industrias y explotaciones relacionadas con SANDACH.

– Behi- eta ardi-azienden entzefalopatia transmitigarrien aurrezaintzarako eta kontrolerako programa (hildako abereen analisiak eginez).

– Programa de prevención y control de las encefalopatías trasmisibles del ganado bovino y ovino, realizando análisis de las reses muertas.

– Erkidegoko aziendaren animali osasunean eragina duen edozein prozesuri aurre egiteko laguntza teknikoak, batez ere, diagnosi eta eritasunari aurre egin eta aurreneurriak jartzearen alorrean; aholkularitza eskaintzea lehen arloko ekoizpenean higiene-programak ezartzeko.

– Apoyo técnico fundamentalmente de diagnóstico y método de lucha y prevención frente a cualquier proceso que afecte a la sanidad animal de la cabaña, así como apoyo de asesoramiento para la implantación de programas de higiene en la producción primaria.

– Epizootiei buruzko legezko xedapenak eta arautegiak betetzen direla bermatzea; era berean, nazioarteko hitzarmenak eta gai honekin lotuta dauden arloetako erakundeekikoak bermatzea.

– Garantizar el cumplimiento de las disposiciones legales y reglamentarias sobre epizootias, convenios internacionales y convenios con organizaciones sectoriales relacionados con esta materia.

– Behi-aziendaren kasuan tuberkulosia, bruzelosia, perineumonia eta leukosiak; ardi- eta ahuntz-aziendaren kasuan bruzelosiak eta txerri-aziendaren kasuan Aujezsky txerri-izurriak eta besikulako eritasunak jota dauden animaliak antzemateko derrigorrezko osasun kanpainak egitea.

– Campañas sanitarias obligatorias para detección de los animales enfermos de tuberculosis, brucelosis, perineumonía y leucosis en bovino, brucelosis en ovino y caprino y pestes porcinas, Aujeszky y enfermedad vesicular en porcino.

| | |
|---|---|
| – Epidemiak zaintzeko sareak hobetzea eta ustiategiko albaitariaren irudia garatzea. | – Mejora de las redes de epidemiovigilancia y desarrollo de la figura de veterinario de explotación. |
| – Hegaztien osasun plana ezartzea. | – Implantación del Plan Sanitario avícola. |
| – Influenza Aviar deritzona zaintzeko plana, hala etxaldeetan nola basa hegaztietan. | – Plan de vigilancia de la Influenza Aviar, tanto en granja como en aves silvestres. |
| – Erruteko hegaztietan salmonellosia kontrolatzeko programa. | – Programa de control de salmonelosis en aves de puesta. |
| – Baso faunan dauden eta herri osasunean edo animalien sanitatean interesekoak diren gaixotasunak zaintzea eta kontrolatzea. | – Vigilancia y control de enfermedades de interés en salud pública o sanidad animal presentes en la fauna silvestre. |
| – Hondakinen eta debekatutako gaien erabilera kontrolatzea animalien elikaduran, pentsuen kontrol eta analisirako programa. | – Control de residuos y sustancias prohibidas en la alimentación animal, programa de control y análisis de piensos, auditorias de fábricas de pienso. |
| – Azienda identifikatu gabeak edota osasun-egoera ezezaguna dutenak biltzea. | – Recogida de ganado no identificado y de origen y estado sanitario desconocido. |
| – Behi-azienda hautatuan IBRk, BVDk, neosporak eta paratuberkolisiak duten prebalentzia aztertzea eta hori kontrolatzeko eta ezabatzeko programa. | – Estudio de prevalencia y Programa de control y/o erradicación de I.B.R., BVD, Neospora y paratuberculosis en ganado bovino selecto. |
| – Ustiategi ukituetan paratuberkulosia kontrolatzeko plana. | – Plan de control de paratuberculosis en explotaciones afectadas. |
| – Behi eta ardi esnearen kalitatea hobetzeko programa eta kalitatearen alorrean arautegia betetzeko segimendua. | – Programa de mejora de la Calidad de la Leche de vaca y de oveja y seguimiento del cumplimiento de la normativa en materia de calidad. |
| – Behi-aziendaren identifikazio elektronikoa. | – Identificación electrónica de ganado ovino. |
| – Zaldi-behorteria identifikatzea 1515/2009 EDaren arabera. | – Identificación de equinos según R.D. 1515/2009. |
| – Txakurrak identifikatzea. | – Identificación canina. |
| – Erlauntzak identifikatu eta erregistroa egitea, eta erlezaintzako osasun plana eta espezie inbaditzaileak zaintzeko plana prestatzea. | – Identificación y registro de las colmenas, desarrollo del Plan sanitario apícola y Plan de vigilancia de especies invasoras. |

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **02. Nekazaritza**<br>**02. *Agricultura*** | **03.** Abeltzaintza<br>**03.** *Ganadería* | **710.101** Animali Ekoizpena eta Osasuna<br>**710.101** *Producción y Sanidad Animal* |

Zuzenean burutzen diren ekintza hauek zeharka burutzen diren beste batzuen laguntza dute, esaterako, positiboa eman duten abereak hiltzeagatik eta horien ordez abere osasuntsuak jartzeagatik abeltzainei ematen zaizkien dirulaguntzak, horrela hamabost (15) eguneko epe motzean derrigorrez hiltzeagatik izan duten galera konpentsatzeko. Era berean, eta ustiategia osasunaren aldetik husten denean, abeltzainen kalte ordaina emango zaie, jarduera aldi baterako uztearren.

Estas acciones directas van apoyadas con acciones indirectas como son las subvenciones que se conceden a los ganaderos por sacrificio de las reses positivas y por la reposición de dichas reses con animales sanos, compensándole de esta forma la pérdida originada por el sacrificio obligatorio dentro del plazo reducido de quince (15) días. Asimismo y en casos de vacío sanitario de la explotación, se indemniza a los ganaderos por el cese temporal de la actividad.

Aurreko ekintza horien osagarri dira EKKPNean plan bakoitzerako ezarritako kontroleko edo ikuskapeneko programak (Abeltzaintza Zerbitzuko teknikariek egingo dituzte).

Las acciones mencionadas se complementan con los programas de control o inspecciones previstos en el PNCOCA para cada Plan y que serán realizados por técnicos del Servicio de Ganadería.

Bestalde, Animalien Babesari buruzko Legearen garapenaren inguruan zenbait jarduketa egiten dira, esaterako, gune zoologikoen kontrola eta erregistroa, animalien garraioan eta ustiategian ongizatearen kontrola eta herri kiroletako doping-aren aurkako kontrola.

Por otra parte, y dentro del desarrollo de la Ley de Protección de Animales, se desarrollan actuaciones como el control y registro de núcleos zoológicos, control en el bienestar animal durante el transporte y en la explotación, así como el control antidoping y bienestar en las pruebas de deporte rural.

Animali Ekoizpenaren programa ekoizteko baliabideak hobetu eta kontrolatzean datza; xedea gure abeltzaintzako ustiategien ekoizmena eta ondare genetikoa hobetzea da. Jakina da EBtik datozen ekoizkinen lehiakortasunak ahalegin handiagoak eskatzen dizkigula nekazaritzan lehiatzeko maila hori eskuratzeko.

El Programa de Producción Animal se centra en la mejora y control de los medios de producción con el fin de lograr mejorar la capacidad productiva y la genética de nuestras explotaciones ganaderas, dado que el aumento de competencia proveniente de productos de la U.E. exige hoy día mayores esfuerzos para elevar el nivel de productividad agrario.

Alde honetako beste helburu garrantzitsu bat animalien elikaduran erabiltzen diren materialen kontrol zorrotza da.

Otro objetivo importante de esta área consiste en garantizar un estricto control de las materiales utilizadas en la alimentación animal.

Halaber, animali ekoizpenaren arloan funtsezkoa da kalitateko produktuak ekoiztu eta merkaturatzeko eta etekinak hobetzeko ahaleginak egitea, bai bizirako ganaduari bai animalia jatorria duten produktuei begira. Ez dira ahaztu behar bertako abereak babestu eta sustatzeko ekintzak.

Asimismo, en materia de producción animal, es fundamental el centrar esfuerzos en la mejora de los rendimientos y en la producción y comercialización de productos de calidad, tanto de ganado para vida como de los productos de origen animal sin olvidar las acciones encaminadas a proteger y fomentar las reses autóctonas.

Helburu horiek eskuratzeko burutuko diren ekintzak hauek dira:

Las acciones que se desarrollan para la obtención de estos objetivos son:

* Hautapena eta Hobekuntza abeltzaintzan:

– Abeltzaintzako ustiategien erregistroaren kudeaketa, espezieen eta ugalkortasun-ahalmenaren arabera (REGA), eta azpiustiategien kudeaketa, genero-politikak aplikatzeko behar den informazio guztia erantsita.

– Aziendaren ekoizpen eta hobekuntzan erabili den material genetikoaren kalitatea kontrolatzea, bai eta ekoizpen zentroak ere.

– Birjarpen bereziarekiko hornikuntzarako programak piztea.

– Liburu genealogikoen kudeaketa sustatzea eta kontrolatzea, eta etekinak kontrolatzea.

– Abeltzainen elkarteen bitartez egin diren hobekuntza genetikoko programak kontrolatu eta bideratzea.

– Animalien elikaduraren alorrean laguntza teknikoa ematea abeltzainei, elkarteei eta abereentzako jangaiak gertutzen dituzten ekoizleei.

– Gai desberdinen ekoizpena, kontsumoa eta erabilgarritasuna, eta animalien elikaduran aplikatzen diren teknikak baloratzea; eta eskuratzen diren datuei buruzko informazioa ematea.

– Animalien elikadurari buruz ezarri den arautegia betetzen dela bermatzea, pentsuen ekoizpen mailan zein abeletxe mailan.

– Desagertzeko arriskuan dauden bertako arrazen karakterizazioa, errolda, sailkapena eta berreskuratzeko programak garatzea, baita horiek sustatzeko jarduerak bultzatzea

* En selección y mejora ganadera.

– Gestión de registro de explotaciones ganaderas por especies y aptitud productiva (REGA), así como gestión de subexplotaciones, incorporando la información necesaria para implementar políticas de género.

– Control de calidad del material genético utilizado en la producción y mejora de la cabaña, así como de los centros de producción.

– Incentivación de programas para el autoabastecimiento con reposición propia.

– Fomento y control de la gestión de los libros genealógicos, así como del control de rendimientos.

– Control y orientación de los Programas de mejora genética llevados a cabo a través de las distintas Asociaciones Ganaderas.

– Apoyo técnico en materia de nutrición animal, a los ganaderos, sus agrupaciones y/o entidades productoras de alimentos ganaderos.

– Valoración de la producción, consumo y utilidad de los diversos productos y técnicas aplicadas en nutrición animal, generando información de los datos obtenidos.

– Garantizar el cumplimiento de la normativa establecida en materia de alimentación, tanto a nivel de producción de piensos como de granja.

– Desarrollo de programas de caracterización, censo, calificación y recuperación de razas autóctonas en peligro de extinción, así como promover actividades para su promoción (ferias…),

(azokak...) eta euskal arrazekin lotutako laguntzak ere.

* Ustiatzeko sistemetan:

– Ustiatzeko sistemak, ustiategien kokaerak, eraikinen ezaugarriak eta hondakin organikoak ezabatzeko eta aprobetxatzeko erak erregistratu eta kontrolatzea.

– Abeltzainek, abeltzainen elkarteek edota abeltzaintzako ustiategiekin lotuta dauden erakundeek ustiatzeko dituzten sistemak arrazionalizatzeko laguntza teknikoa ematea.

– Abeltzaintzako ekoizkinen kalitatea sustatzea eta kontrolatzea, eta hori tokian bertan egitea; ataza hori, batez ere, gizakiek kontsumitzeko ekoizkinentzat da.

– Instalazioen eraikin-ezaugarriei eta kokaerari buruz, ekoizteko eren inguruan eta abarri buruz ezarri den arautegia betetzen dela bermatzea**,** dagozkion txostenak eginez, 515/2009 Dekretuari jarraiki.

Abeltzaintza gehiago hobetzeko asmoarekin, abeltzaintzako elkarteentzako laguntzak ezarri dira, zertarako-eta hobekuntza genetikoa eta etekinen kontrolari buruzko programak garatzeko eta era jarraikorrean hala elkarte horien kideak diren abeltzainen ekoizpen-maila nola, oro har, alor osoarenak igotzeko eta hobetzeko.

así como ayudas relacionadas con las razas autóctonas.

* En sistemas de explotación:

– Registro y control de los diferentes sistemas de explotación, ubicación de las explotaciones, caracteres constructivos y métodos de eliminación y aprovechamiento de residuos orgánicos.

– Apoyo técnico para la racionalización de los sistemas de explotación de los ganaderos, sus organizaciones e instituciones relacionadas con las producciones ganaderas.

– Fomento y control de la calidad de los productos ganaderos en origen, fundamentalmente los destinados a consumo humano.

– Garantizar el cumplimiento de la normativa establecida en materia de ubicación y caracteres constructivos de instalaciones, métodos de producción, etc., realizando los correspondientes informes en el marco del Decreto 515/2009.

Con el objeto de incidir en la mejora ganadera, se han establecido ayudas para las distintas asociaciones ganaderas, facilitando la puesta en marcha de programas de mejora genética y control de rendimientos, consiguiéndose aumentar progresivamente los niveles de producción de los ganaderos asociados en particular y del Sector en general.